

## COSIMOREN KATIUSKAK

Testua: Dani Martirena

Irudiak: Ana Ibañez



### XII. ETXEPARE SARIA (2018)

ISBN 978-84-9172-059-1. Pamiela

Kartoi gogorrean koadernatua. 17 x 33,5 cm. 38 or. 14 €



Hiriko parkerik txikienean nago eta Cosimo dut izena. Trebea izan nahi dut zuhaitzetan gora. Trebeena. Adarretik adarrera ibili nahi duzuean, beherantz ez begiratzea da hoberena [...]

*Cosimo eta parke txiki bat dira protagonistak. Cosimok zuhaitz batean eraiki du etxola, eta hortik inguruari erreparatzen dio. Egileek Italo Calvinoren II barone rampante liburu ezagunaren erreferentzia erabili eta gaurkotu dute, Cosimo haurrari baliabide berriak eman dizkiote eta, gizartean kokatuz, edertasunaren aldarrikapena zabaldu dute.*

«...Cosimoren katiuskak liburu indartsua da bai testuan baita ilustrazioan ere, aberatsak dira bi lengoaiak. Teknikoki ausarta, guztiak du zeresana, eta horregatik eskaintzen du irakurketa ugari; arriskatzen duen obra bat da, euskal idazle eta ilustratzaileen maila ondo baino hobeto erakusten duena”.

[Etxepare Sariko epaimahaikideen hitzak]

- **Gaia:** Ingurumenarekiko kontzientzia, askatasuna, elkartasuna.
- **Adin egokia:** 6 urtetik aurrera.
- **Nabarmentzeko moduko datuak:** collage teknikaren eta marrazketaren bitartez sortutako iruditeria, erreferentzia literarioak (*Il baroren rampante*), haurren bakarkako jolasak, neurriak, alfabetoa, hiria eta haurren aldaketa...

**Dani Martirena Indart**, Legasan jaioa, kazetaria ogibidez, azken urteotan Euskal Irrati Telebistako albistegietan erredaktore lanetan aritzen da.

Literaturari dagokionez, han eta hemengo lehiaketetan saritu izan dituzte bere idazlanak.

Haur literaturan bi liburu argitaratu ditu Ana Ibañezekin batera: *Hankaz gora du amak mundua* (Liburu iletuak, 2015), *Jonek Jone izan nahi du* (Liburu iletuak, 2017).

**Ana Ibañez Elosua**, Iruñean jaioa, Arte Ederretan lizentziatua eskultura alorrean. Halaber, grabatu eta estanzazio teknikak ikasi zituen Iruñeko Arte Eskolan.

Hainbat taldekako erakusketetan hartu du parte, hala nola norbanakoetan. *Biguina eta beroa* Zizur Nagusiko kultur etxean (2004), *Koloreak eta hariak* Gayarre Antzokian (2003) edo *Haragi barruko lorategiak* Molmar arte galerian (2002) dira banaka egindako erakusgaien adierazgarri.

Sariak eta bekak ere jaso izan ditu. Kasurako, eskulturako 2. saria eta pinturako 3. saria Iruñeko Gazte Sarien XIV. deialdian.

Dani Martirenakin bi liburu argitaratu ditu (aurretik aipatuak).



<http://www.etxeparesaria.eus/>



Tel.: 948 326 535 / [soltxate@pamiela.com](mailto:soltxate@pamiela.com)  
[www.pamiela.com](http://www.pamiela.com)